

Irakasleentzako orientabideak

SARRERA

Proposamen horrek elikadura, osasuna eta hezkuntza ditu hizpide, baina oinarrizko eskubideak izan arren, munduko milioika pertsonentzat ez daude ziurtatuta. Bi funtsezko ideia daude. Lehenengoa da pertsona guztiak daukagula geure premiak aseta edukitzeko eskubidea, eta bigarrena, eskubide unibertsalak izan arren, bete gabe geratzen direla, baliabideak modu injustuan banatzen direlako.

HELBURUAK

Oinarrizko eskubideak guztien eskura egon behar duten arren, herrialde askotan ez direla betetzen aurkitzea.

Osasuna, hezkuntza eta elikadura egokiak izateko eskubidea gauzatzea zein garrantzitsua den ulertzea eta eskubide horiek ez betetzeak dakartzan ondorio larriak kontuan hartzea.

Osasuna eta hezkuntza egokiak zein funtsezko elikadura mundu osoan errealitate bihurtzearen premia defenditzea.

EDUKIAK

Jarrerak, balioak eta arauak

Giza Eskubideen balioespena.

Norberarenak ez bezalako errealitateekiko ezaguera, balioespen, enpatia eta errespetua.

Elkartasunaren eta justizia sozialaren sustapena.

Proposatutako eginkizunetan parte hartzeko interesa.

Kontzeptuak

Pertsonen oinarrizko eskubideak.

Pertsonen oinarrizko eskubideen urraketa.

Prozedurak

Bitarte batzuk erabiliz, informazioa lortu.

Ahozko eta idatzizko adierazpena.

Teknologia berriak.

SAIOAK: 4 eskola-ordu

IKASKUNTZA-JARDUERAK

TXATEA DEZAGUN GIZA ESKUBIDEEI BURUZ

Helburua: Ikaslea Giza Eskubideen gaira pertsonaiaren bitartez hurbiltzea. Giza Eskubideak pertsonen bizitzarako funtsezkoak direla ezagutzea. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 26. artikulua ez dela betetzen kontuan hartzea. Pobrezia erazteko oinarrizko tresna modura hartzea hezkuntza.

Deskripzioa: Kasu konkretu batetik abiatuz, munduan dagoen hezkuntza-egoera arakutzen da. Gure herriko eskola bateko haurren eta Jose gure istorioako protagonistaren arteko txat bat balego bezala funtzionatzen da.

Orientabideak: Josek egindako galderetatik abiatuz, pertsona guztiak hezkuntza izateko daukaten eskubideari buruzko ideia-zaparrada egingo da. Sortzen diren ideiak arbelean idatzi, eta arrazoi pertsonalak eta kolektiboak bereizten hastea komeni da. Gero, ideia nagusiak denen artean hautatuko dira eta, ideia horiekin, denek koadernoan idatzi behar duten testua idatziko da, erantzuna bidaliko balute bezala.

ZENBAKIAK ZENBAKI

Helburua: Zifren bidez, herri pobreen eta aberatsen artean osasun- eta hezkuntza-eskubideei dagokienez dauden ezberdintasunak kontuan hartzea.

Deskripzioa: Hiru herrialdetako (Espainia, Mozanbiki, Albania) grafiko batzuetatik abiatuz, eragiketa matematiko batzuk egin behar dituzte ikasleek, eta, horrela, aurrerago egingo diren galderei erantzuteko aukera izango dute.

Orientabideak: Eragiketa matematikoak zein gogoeta eta galderei emandako erantzunak, bakarka edo talde txikietan egingo dira. Gero, batera jarriko dira.

E-POSTA BAT BIDALIKO DIOGU NAZIO BATUEN ERAKUNDEARI

Helburua: Errealitatean gertatzen diren injustizia-egoera batzuk eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren zenbait aurkikutan esandakoa konparatu. Munduan milioika pertsonak bizi behar duten injustiziekiko jarrera kritikoa ikasleen artean sustatzea.

Deskripzioa: Aurkitzen diren datuen irakurketatik eta denen arteko komentariotik abiatuz, injustizia-egoera horien alde egin ahal diren konponketa posibleei buruz hausnartu beharko dute ikasleek.

Orientabideak: Posta-mezua bidaltzeko, NBEren helbide elektronikoa eman beharko zaie ikasleei. Irakaslearen iritzia arabera, beste zenbait agintari, erakunde edo organismorenak ere eman ahal zaizkie, nahi baldin bada, e-postaz idazteko aukera edukitzeko.

ELAYANEN ISTORIA

Helburua: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren osasunari eta ongizateari buruz 25. artikuluan dioena ez dela betetzen ezagutzea. Pertsonak bizitza duina izan dezaten osasunak eta elikadurak duen garrantzia aitortzea.

Deskripzioa: Txatetik abiatuz, Elayan-ek bere burua aurkeztu eta bere egoeraren berri ematen du. Irakurgaitik abiatzen bada, erantzuteko eskatuko zaie ikasleei. Pertsonaiek egiten dituzten galderak.

Orientabideak: Galderari erantzuteko, pertsona guztiak eskubide unibertsalaren eduki ditzaten sortzen diren ideiak arbelean idatzi. Azkenik, garrantzitsuenak aukeratu eta ikasleek testu bat idatzi eta koadernoan kopiatu behar dute.

DENEN ARTEAN LORGARRIA DA!

Helburua: Munduan dagoen goseari buruzko hausnarketa egin. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren elikadurari buruz 25. artikuluan esaten duena ez dela betetzen ezagutzea.

Deskripzioa: Txateko beste mezuetatik abiatuz, elikadura-eskubideari buruzko informazioa ematen zaie ikasleei. Aldi berean, gogoeta-jarduerak bat eta idazkuntza-lana proposatzen dira. Hori dena baturik, ikasleek munduko gosea zurrizteko ohiz erabiltzen diren esaketa batzuk ezagutu eta gogoeta egin dezaten bilatu nahi da.

Orientabideak: Informazioa bakarka irakurriko da, eta, gero, ondoren datorren erlazio-lana ebatziko da talde txikietan. Talde bakoitzak bere emaitzak azalduko ditu, eta emandako iritzia eta argudioak gelako guztien artean aztertuko dira.

ZER DA GARRANTZITSUENA?

Helburua: Elikadura, osasuna eta hezkuntza bestelako premia sozialei aurre egiteko ezinbestekoak direla aurkitzea.

Deskripzioa: Ikasleek monografikoan zehar landutako guztia batzen duen laburpen-jarduerak bat da. Ikasleek beren burua kokatu eta oinarritzko premiekiko irizpideak hartzen ikasi behar dute. Proposatutako bost puntuak garrantzi handiena duenetik txikiena duenaren arabera ordenatu behar dira.

Orientabideak: Jarduera hau norberak bakarka hausnartzeko pentsatuta dago. Ariketa modu pertsonalean ebatzi ondoren, batera jarriko da.

EGIA ALA GEZURRA?

Helburua: Monografikoan zehar landutako laburbiltzea.

Deskripzioa: Ikasleei zortzi ebazpen dituen zerranda bat emango zaie, eta egia zein gezurra diren kontuan hartuz sailkatu behar dituzte.

Orientabideak: Jarduera honi esker, ikasleek barneratu dutena ikusiko dugu eta, aldi berean, iritzi kritikoa iradokitzen lagokionez noraino hazi diren neurtuko. Aurreko jardueran bezala, gogoeta pertsonalaren ondoren, eztabaida dator; eta ondoren, ariketaren ebazpena talde txikietan, eta batera-jartze orokorra.

ZER IKASI DUGU TXATEO HONETAN?

Helburua: Inplikazio pertsonalaz gogoeta egin eta aukera bultzatzea.

Deskripzioa: Bakarkako zein taldekako ekintzak proposatu behar dira, milioika pertsonen bizi-baldintza ez-duinak erazteko lagungarri suerta daitezkeenak.

Orientabideak: Jarrera pertsonalaren balioa eta jarrera horrek arlo kolektiboan duen eragingarritasuna (ideiak azaltzeko, idazkiak egiteko, boluntariotza bultzateko, etab.) nabarmendu behar da.


Lehen mailako hezkuntzako 2. zikloa

GIZA ESKUBIDEAK



Txatea dezagun Giza Eskubideei buruz

26. artikulua:
Pertsona orok du
hezkuntza izateko
eskubidea. Hezkuntzak
doakoa izan behar du.
Oinarrizko instrukzioa
derrigorrezkoa izango
da...





Zergatik bete beharko litzateke Giza Eskubide hori, hots, eskolatua izatea?



Zenbakiak zenbaki

Konpara itzazau grafiko hauek eta erantzun galderei:




- Non daude irakurtzen eta idazten dakiten pertsona gehiago, Espainian ala Mozambiken?
- Zenbat analfabeto gehiago daude Mozambiken Espainian baino?
- Zenbat mediku egongo lirateke Espainian 1000 pertsona bakarrik biziko balira?
- Zenbat mediku egongo lirateke Albanian 1000 mediku bakarrik biziko balira

e-posta bat
bidaliko diogu
Nazio Batuen
Erakundeari

un@un.org

**Hezkuntza
unibertsalaren alde**



Ba al zenekien...

Neska-mutil guztien hezkuntzak munduko hezkuntzarako inbertsioa AEBtako 8.000 milioi dolarretan gehietzea eskatuko lukeela. Kopuru hori eta ondoko datuak parekoak dira:

- Lau eguneko gastu militarrek mundu osoan.
- Espainiako gobernuak 1996an defentsan gastatutakoa.
- Europarrek izozkietan urtean gastatzen dutena baino gutxiago.
- Madrildarrek eta katalanek 1996an zori-jokoetan gastatutakoa.
- Europak eta AEBek etxeko abereak elikatzeko gastatzen dutenaren erdia.

Elayan-en istorioa

25. artikulua:
Pertsona orori
bizi-maila egokia
dagokio, berari eta
bere familiari
osasuna eta
ongizatea ziurtatuko
diona



The screenshot shows the website 'txateatu.com' in a Microsoft Internet Explorer browser window. The browser's address bar shows 'http://www.intermon.org/'. The website has a header with the 'Intermón Oxfam' logo and a navigation menu on the left. The main content area features the title 'txateatu.com' and a large paragraph of text in Basque. The text discusses the author's experience with a health issue and their involvement with Intermón Oxfam. At the bottom of the page, there is a question: 'Zer egin dezakegu guk osasun-eskubidea guztiok izan dezagun?'.

txateatu.com

Kaixo, Elayan naiz, eta Joseren mezua eta zuek hari bidalitako erantzuna irakurri ditut. Giza Eskubideei buruz txateatzen ari zaretenez, nik neure kasua kontatu nahi nizuke. 10 urteko neska bat naiz, eta Indiako Pune herriko auzo batean bizi naiz.

Etxean ez daukagu urik, plazako putzuko iturrira joan behar dugu ur bila. Askotan, zikin samarra dator ura, baina ez daukagu besterik. Edateko, janaria prestatzeko eta garbitzeko erabiltzen dugu. Egun batean, oso gaixorik jarri nintzen, beherakoa neukan, eta, auzoan ospitallerik ez dagoenez, 5 km-ko bidea egin behar izan nuen amarekin hiriaren erdiraino. Han ilara handia gorde behar izan genuen, auzokoei dagokien medikuak beste 10.000 pertsona zaindu behar baititu. Botika batzuk eman zizkidan baina, etxean dirurik ez daukagunez, ezin izan genituen erosi.

Nire auzoko helduek urteak daramatzate politikoei ospitale bat egitea exijituz, eta komunak ere bai; ez daukagunez, ur-putzua kutsatu egiten baita. Baina eurek diote gobernuak ez daukala dirurik dabilen edateko ura jartzeko, komunak eta ospitalea eraikitzeko; antza denez, nire herriak milioi asko zor dizkielako Europari eta AEBri, eta haiei ordaindu behar dietenez, ez daukate sosik guretzat.

Zer egin dezakegu guk osasun-eskubidea guztiok izan dezagun?

Zer egin dezakegu guk hemendik osasuna izateko Giza Eskubide unibertsala bete dadin?

The screenshot shows the website 'txateatu.com' in a Microsoft Internet Explorer browser window. The browser's address bar shows 'http://www.intermon.org/'. The website has a header with the 'Intermón Oxfam' logo and a navigation menu on the left. The main content area features the title 'txateatu.com' and a large paragraph of text in Basque. The text discusses the author's experience with a health issue and their involvement with Intermón Oxfam. At the bottom of the page, there is a question: 'Zer egin dezakegu guk osasun-eskubidea guztiok izan dezagun?'.

txateatu.com

Kaixo, Elayan. Gelan komentatu ondoren, hiru gauza egin ditzakegula pentsatu dugu:

Denon artean longarria da!

25. artikulua:

Pertsona orori bizi-modu egokia dagokio, berari eta bere familiari osasuna eta ongizatea ziurtatuko diona, eta bereziki, elikadura, jantziak, etxebizitza, osasun-zerbitzua eta beharrezkoak diren gizarte-zerbitzuak...



Lot itzazu ezkerreko zutabeko galderak eskuineko zutabeko datuekin, kontuan hartuz haiek ezeztatuak geratzen direla

1. Gosea dago elikagai gutxi daudelako.
2. Gosea dago lur gutxi daudelako.
3. Gosea populakuntza-dentsitatearen ondorioa da.
4. Gosearen arazoa konpontzeko, elikagai gehiago ekoiztu behar dira lehenago.

- a. Garapen teknologikoari esker, elikagai gehiago ekoiztea lortu da. Hala ere, horrek baliabide gutxiago dauzkaten nekazari apalak baztertu eta pobretu ditu, ezin baitute ustiategi handi eta modernoekin konpetitu.
- b. Brasilek AEBak baino hektarea gehiago landu ditu pertsona bakoitzeko, eta haren populakuntza-dentsitatea txikiagoa da. Halaber, brasildarren %55 gaizki elikatuta dago.
- c. Lur laboragarrien %44 baino ez da lantzen. Afrikan, %33 bakarrik. Lurjabe handientzat lurra inbertsioa da elikagaiak ateratzeko baliabidea baino gehiago.
- d. Mexikon, non nekazaritza-guneetako haurren %80 gutxi elikatuak dauden, esportatzeko abereek populazio osoak baino ale gehiago kontsumitzen dituzte.

Zer da garrantzitsuena?

Ordena itzazu esaera hauek, garrantzi handiagoa duenetik txikiagoa dueneera. Edozein herrik eduki beharako lituzkeen gauzak dira

Errepideak

Gutxieneko elikagai-kopurua guztientzat

Neska-mutil guztientzako oinarrizko eskolak

Osasun-zentro aski guztientzat

Armada oso ondo armatua

Egia ala gezurra?

Esaera bakoitzaren aldamenean egiaren E eta gezurraren G ipini

a) Munduko haur guztiak osasuna eta hezkuntza izateko eta elikagaiak eskuratzeko modua daukate

b) Munduko haur guztiak osasuna, hezkuntza eta elikagaiak izateko eskubidea dute

c) Herrialde pobreetan haur guztiak ez dira eskolara joaten

d) Munduko haur guztiak txertoa hartzen dute

e) Gerrak oztopo dira guztientzako elikagaiak egoteko

f) Munduan badago nahikoa elikagairik populazio osoarentzat

g) Herrialde pobreetan jende askok ez dute jaten, argal egon nahi dutelako

h) Herrialde pobreetan dagoen medikuen eskasia haurrek, emakumeek eta adinekoek pairatzen dute bereziki

Zer ikasi dugu txateo honetan?

Giza Eskubide Unibertsalak ez dira betetzen

Zer egin dezakegu guk eskubide horiek bete daitezen?